

GAIXOEN OLIADURA

SARRERA

1. Gaixotasunaren “misterioa” gizakiaren bizitzan

Gaixotasuna, gaitza, betidanik izan da gauza “misteriotsua” gizakiarentzat. Orain zientziak eta medizina, teknikaren laguntzaz, gaixotasuna sustrai-sustraitik ezagutzen duela dirudi eta, horregatik, sustrai-sustraian harrapa dezakeela eta desegin. Eta hein handi batean hala egiten du, nahiz eta ez dituen gaitz eta gaixotasun guztiak menderatzen eta sendatzen. Baina halako ezagutzarik eta teknikarik ez zenean, zer pentsa zezakeen gizakiak bere gorputzean sumatzen zuen gaizkiaz, askotan bizia kentzen zion gaitzaz?

La realidad de la enfermedad un “misterio” para el ser humano, incluso ahora que la ciencia, la medicina y la técnica han descifrado el origen de la enfermedad y dominado su proceso.

Ez zekien nondik eta zergatik zetorkion –orain, gehienetan antzematen diote, baina ez beti, ezta gaixotasun guztietan ere–. Ezjakintasun horren erdian, argibideren edo esplikazioren bat izan nahirik, gaixotasuna Jainkoak bidalia zela pentsatzera iritsi zen gizakia, eta egindako bekatuengatik emandako zigorra zela. Beraz, gaixo zegoena gizartetik baztertua gertatzen zen (eta hala gertatzen da, askotan, gaur egun ere), beste guztiak bezala ez zegoelako eta, batez ere, Jainkoak zigortua zela uste zutelako.

Eskuetan zituen erremedioetara jo izan du, bai, gizakiak gaixoaldian; baina batik bat Jainkoarengana jo izan du, bekatua barkatzeko eskatuz eta, bekatua barkaturik, gaitza menderatzeko laguntza eskatuz.

La falta de conocimiento del origen y del proceso de la enfermedad lleva al ser humano a pensar que la enfermedad proviene de Dios, como castigo a algún pecado cometido por el enfermo o por su familia. Por eso, además de a remedios diversos, el enfermo acude a Dios, solicitando el perdón y la curación.

2. Jainkoaren Seme gizon eginak bere gain eraman gure zauriak

Jainkoaren Semeak berak, gizon-emakumeokin bat egin nahirik, solidarizatu nahirik, gure izate mugatua onartu zuen eta neke handiak eraman zituen bere gorputzean, Nekaldikoan batez ere. Jainkoak zigortutzat jo zuten Jesus ere bere garaikoek. Gerora, piztueraren argitan, Jesusen jarraitzaileek beste era batera ikusi zuten Jesusen sufrimendua: *Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzeraino eraman zituen* –dio San Pedrok bere gutunean, Isaia profetaren liburuan datorren Jaunaren Zerbitzariaren laugarren kantika gogoratuz (Is 53, 4-6. 12)–, *gu ere, bekatuzko bizierari uko eginez, zuzentasunaren arabera bizi gaitezen. Haren zauriek sendatu gaituzte* (1 P, 2, 24).

El Hijo de Dios se hace solidario de los seres humanos, llevando al madero los pecados de los hombres. “Sus heridas nos curaron”, afirma San Pedro.

3. Jesusen jarduera sendatzailea

Jesusek beste jarrera erabat ezberdina zuen gaixo zegoenaren aurrean. Gaixo zegoena ez zen Jainkoak zigortua; gaixotasuna ez zen Jainkoak bere haserrean bidalitako gaitza. Beste

zerbait zen. Jaiotzez itsu zenaz ikasleek galdetu ziotenean: *Maisu, zeinek egin du bekatu hau itsu jaiotzeko, honek ala gurasoek?* Jesusek erantzun zien: *Ez honek, ez honen gurasoek. Jainkoaren egintzak honengan ager daitezzen jaiotzearen itsu (Jn 9, 2-3). Eta Jainkoaren egintza, itsuari ikusmena emanez agertu zuen Jainkoak.*

Ebanjelioek Jesusen jarduera sendatzailea azpimarratzen dute, beti ere hau erakusteko: **Jainkoak gizon-emakumeon alde duen salbamen-asmoa** –Jesusek “Jainkoaren Erreinu” deitua– **egia gertatzen ari dela Jesusek gaixoa sendatzen duenean.**

La actividad sanadora, curativa, de Jesús está especialmente subrayada en los Evangelios. Jesús ofrece la curación para mostrar que el plan salvador de Dios –el “reinado de Dios”– está haciéndose realidad.

4. Gaixoen Oliadurako Sakramentua: Jesusen jarduera sendatzailea gertaberritua

Jesusek berak ez ezik, ikasleek ere sendatu ohi zituzten gaixoak, Jesusek hala egiteko agindurik eta Hark emaniko ahalmena baliatuz. Mk 6, 13 pasartean, gaixoak sendatzeko **olioz igurzten** zituztela dio ebanjelariak. Ekintza honetan ikusten dugu Gaixoen Oliadura deritzan sakramentuaren jatorria.

Ekintza edo zeinu horixe bera egin ohi dugu orain guk ere. Begiz ikus dezakegu zeinu hori, ikusi ezin dugun egia salbagarri honen ezaugarri da: Jesus bera ari dela orain ere, gure eskuz, gaixoa maitasunez hartzen, gaixoari barkamena ematen eta gaixoaldian laguntzen.

*El sacramento de la **Unción de los Enfermos**, cuyo origen podemos percibir en la actividad sanadora de Jesús y de sus discípulos (Mc 6, 13), actualiza, muestra y realiza la actividad curativa de Jesús aquí y ahora.*

5. Kristau-elkartearen egitekoa gaixoekiko

Familia betidanik arduratu izan da gaixotu zaion kideaz eta eginahalak egin dizkio sendakuntza bilatzeko eta gaixoaldian laguntzeko. Kristau-elkarteak ere, Jainkoaren seme-alaben familia denez, arduratu beharra du gaixorik dituen bere kideez eta, elkartekoak ez izanik ere, gaixorik dauden gizon-emakumeez.

Historia osoan zehar izan dira –une larrienetan bereziki– gaixoei, ezinduei, adinekoei laguntzeko bere burua eskaini duten kristauak, horietako batzuk “santu” aitortuak. Gaur egun ere, gaixoei laguntza eta sendabidea eskaintzea da eliz elkarrekin munduko nazio askotan eskaintzen duen zerbitzurik nabarmenena. Horrela, kristau-elkartea, bere Jauna bezala, gaixoaren ondoan eta gaixoaren alde jartzen da, gaixotasuna arinduz eta eztituz Jainkoak dion maitasuna ikusten eta eskertzen laguntzeko, Jesusek egin ohi zuen bezala.

La comunidad eclesial ha tenido una constante solicitud a lo largo de los siglos por sus miembros enfermos e, incluso, por los enfermos no pertenecientes a la comunidad. La historia muestra a muchos cristianos y cristianas dedicando por entero su vida a los enfermos, impedidos, ancianos... Una dedicación que sigue vigente. Prueba de ello son los servicios que en el mundo entero ofrece la Iglesia a los enfermos e impedidos.

ELIZ DOKUMENTU BATZUEK GAIXOEN OLIADURAZ DIOTENA

1. Paulo VI.ak 1972an argitaratu zuen dokumentuak Gaixoen Oliaduraz dioena:

Gaixoen Oliadura Santua, Eliza Katolikoak onartzen eta irakasten duen eran, “Jesu Kristo gure Jaunak eraturik, Itun Berrian azaltzen diren zazpi sakramentuetako bat da, Markoren ebanjelioan nolabait aipatua (Mk 6, 13), fededunentzat gomendatua eta Jakue Apostoluak, Jaunaren anaiak, aldarrikatua: *Zuetako norbait gaixo dagoela? Dei egin diezaiela eliz arduradunei, gaixoaren alde otoitz egin eta Jaunaren izenean olioaz igurtzi dezaten. Fedez egindako otoitzak osasuna emango dio gaixoari eta jaikiaraziko du Jaunak, eta barkatu egingo dio, bekaturik egin badu* (St 5, 14-15)¹”.

Hasierako garaietatik azaltzen dira Elizaren Tradizioan, bereziki liturgian, gaixoen oliadurari buruzko testigantzak, nola Ekialdeko hala Mendebaldeko Elizan. Trentoko Kontzilioak XVI. mendean zioen, Santiagoren gutunak dioenaren arabera, *egoera larrian eta, horregatik, hiltzeko arrisku edota zorian dauden eriei eman behar zaiela sakramentu hau eta, horregatik “azken igurtzia” ere deitzen zaiola*. Sakramentu honetan ministraria apaiza, presbiteroa, dela deklaratu zuen.

Gerora, Vatikanoko II. Kontzilioak hau dio: *“Azken Igurtzia”, hobeki “Gaixoen Oliadura” deitua, ez da hiltzerian daudenen sakramentua. Beraz, kristaua gaixotasunagatik nahiz adinagatik hiltzeko arriskuan egoten hasten den garaia da sakramentua hartzeko garai egokia*. Izan ere, Gaixoen Oliaduraz eta apaizen otoitzez, sufritu zuen eta orain aintzatsu den Jaunaren esku uzten ditu Elizak gaixoak, gaitza arindu diezaien eta salba ditzan (ik. St 5, 14-16), eta dei egiten die Kristoren nekaldi eta heriotzarekin beren gogoz bat egin dezaten (ik. Erm 8, 17; Kol 1, 24; 2 Tm 2, 11-12, 1P 4, 13), eta horrela beren sufrimendua Jainkoaren Herriaren onerako eraman dezaten².

Beraz, gaixotasun larria duten eriei ematen zaie gaixoen oliadura, kopeta eta eskuak oliba-olio bedeinkatuz edota bestelako landare-olio bedeinkatuz igurtziz eta honako hitz hauek behin bakarrik esanez: *“PER ISTAM SANCTAM UNCTIONEM ETA SUAM PIISIMAM MISERICORDIAM ADIUVET TE DOMINUS GRATIA SPIRITUS SANCTI UT A PECCATIS LIBERATUM/AM TE SALVET ATQUE PROPITIUS ALLEVET”*. (Oliadura santu honen bidez eta bere erruki handiari esker, lagun zaitzala Jaunak Espiritu Santuaren graziaz. AMEN. Bekatutik aterata, salba zaitzan ere bizkortu. AMEN. *Por esta santa Unción y por su bondadosa misericordia, te ayude el Señor con la gracia del Espíritu Santo. AMÉN. Para que, libre de tus pecados, te conceda la salvación y te conforte en la enfermedad. AMÉN.*)

Gaixoen Oliadura hartu eta gero sendatu baldin bada eta berriz gaixotu edota, gaixoaldian, okerrera egin badu, har dezake berriz ere Oliadura.

¹ TRENTOKO KONTZILIOA, XIV. Saioa, De extr. Unct. 1. kap.

² Lumen Gentium, 11.

2. Erromako Ohikune Liburuak dakartzan oharpen batzuk

1. Gizakia nahigabetzen duten nekerik handienetakoak dira gaixotasuna eta oinazea. Kristausinesmena dutenek, ordea, denek bezala nozitzen badituzte ere, adore eta kemen handiagoz eramaten dituzte fedearen argiak lagundurik, horri esker ikusten baitute sufrimenduaren misterioaren handia. Izan ere, Kristoren hitzei esker badakite nolako balioa duen gaixotasunak norberaren eta munduaren salbamenerako eta, gainera, badakite Kristok berak bereziki maite dituela, lur honetako bizitzan hainbeste gaixo sendatu baitzuen.

2. Ezin da esan gaixotasuna bekatuengatik ezarritako zigorra denik (ik. Jn 9, 3), betidanik hala uste izan bada ere. Kristok berak, bekaturik izan ez arren, era guztietako oinazeak izan zituen gurutzean. Eta orain guk sufritzen dugunean, Kristo bera ari da sufritzen bere gorputz-atal oinazetuetan.

3. Bat dator Jainkoaren salbamen-asmoarekin gizakiak edozein gaixotasunaren aurka egitea eta osasuna arretaz zaintzea, gizartean eta Elizan dituen eginkizunak betetzen jarraitu ahal izan dezan; baina prest egon beharra du munduaren salbamenerako Kristoren nekaldiari falta zaiona osatzeko (ik. Kol 1, 24; Erm 8, 19-21).

4. Eri edo gaixoak berak ez ezik, sendagileek eta erizainek ere eginahalak egin behar dituzte sufritzen ari denaren gorputza eta espiritua gozatzeko. Horrela jokatzuz, bat egiten dute gaixoak bisitatzeko agindu zuen Kristo berarekin. Izan ere, gizaki osoari behar zaio lagundu, baliabide fisikoak erabiliz eta kontsolamendu espirituala eramanez.

Gaixoen Oliadura, graziaren laguntza eta indarra ahulaldian

5. Ebanjelioetan argi ikus daitekeenez, Jaunak arreta handiz lagundu zien gaixoei. Eta hala egiten irakatsi zien bere ikasleei. Gaixoen Oliadura, Jaunak eratu eta Santiagoren gutunean aipatua, betidanik ospatu izan du Elizak gaixorik dituen kideen alde, apaizek oliadura emanaz eta otoitz eginez, gaixoak Jaun oinazetu eta aintzatsuaren esku utziz eta halakoei nekeak arintzeko eta salbamina emateko eskatuz (ik. St 5, 14-16). Aldi berean, aholku ematen die gaixoei beren neke-minetan Kristoren nekaldi eta heriotzarekin bat egin dezaten (ik. Erm 8, 17; Kol 1, 24; 2 Tm 2, 11-12; 1 P 4, 13) eta beren gaixoaldia Jainkoaren Herriaren onerako eskain dezaten (LG 11).

Izan ere, gaixoaldi larrian, Jainkoaren graziaren laguntza berezia behar du gizakiak, adorea gal ez dezan eta fedea ahul ez dakion. Horretarako indarberritzen ditu Kristok bere fededun eriak, Oliaduraren indarrez sendotuz.

Sakramentuaren osagaiak, nagusiki, honako hauek dira: Elizako apaizek, eskuak ezarri ondoren, otoitz egiten dute fedez eta olio santuaz igurzten dituzte gaixoak. Ohikune hau betez, sakramentuaren grazia adierazten eta ematen da.

6. Espiritu Santuaren grazia ematen dio sakramentuak eriarri; horrela, gizaki osoak hartzen du laguntza osasuna berreskuratzeko, uste osoa Jainkoarengan jartzeko, etsaiaren tentazioei eta herioaren larritasunari aurre egiteko. Horri esker, gaitzak adoretu eraman ditzake eta halakoen aurka borrokatu, baita osasuna berreskuratu ere, salbamenerako komenigarria baldin bada. Eta, beharrezkoa baldin bada, bekatuen barkamena kristau Penitentziaren betea ere ematen dio sakramentuak eriarri.

7. Sinesmenez otoitz eginez, Oliadura santuak fedea suspertu nahi du, bai sakramentua ematen duenarengan, bai hartzen duenarengan. Izan ere, sinesmenak salbatuko du gaixoa,

Kristoren heriotza eta piztuerari begiratzuz, hortik baitator sakramentuaren indarra (ik. St 5, 15).

Nortzuei eman Gaixoen Oliadura

8. Santiagoren gutunean esaten denez, gaixo daudenei eman behar zaie Oliadura, gozatzeko eta salbatzeko. Adinaren handiagatik edota gaixoaren larritasunagatik bizia arriskuan izan dezaketen fededunei eman behar zaie, beraz, Gaixoen Oliadura (SC 73). Gaixotasuna larria den ala ez erabakitzeko, aski da irizpen zuhurra izatea, inolako estutasunik gabe, beharbada, sendagileari iritzia eskatuz.

9. Oliadura hartu ondoren, eriak onera egin eta berriz ere larri jarriko balitz, berriz ospa daiteke sakramentu hau.

10. Ebakuntzaren bat egin behar dioten gaixoak ere har dezake Oliadura, baldin eta ebakuntza hori gaixotasun larriren batengatik egin behar badiote.

11. Gaitz larririk izan ez arren, adinagatik indarrak ahultzen ari zaizkien zaharrei ere eman dakieke Oliadura.

12. Hurrei ere eman dakieke Oliadura, baldin eta sakramentuaren esanahia ulertzeko gai badira. Ulertzeko gai diren ala ez zalantza dagoenean, eman egin behar zaie.

14. Ezaguera galdua duten gaixoei ere, beren onean zeudenean inplizituki bederen eskatua baldin bazuten, eman egin behar zaie Oliadura.

15. Gaixoa hil eta gero, apaizak ez biezaio Oliadura eman; egin beza otoitz haren alde Jainkoak bekatuak barka diezazkion eta bere errukiaz erreinuan har dezan. Egiaz hila dagoen ala ez zalantza balu, egin bezala horrelakoetarako ohikuneak dioena.

Oliadura ospatzeko behar direnak

20. Oliba-olioa edota, besterik ezean, landaretatik ateratako olio. Gotzainak bedeinkatu ohi du olio hori Aste Santuan; baina olio bedeinkaturik ez bada, edozein apaizek bedeinka dezake Oliadura emateko unean.

23. Gaixoa kopetan eta eskuetan igurtziz ematen da Oliadura, bitartean otoitza esanez. Beharrezko denean, aski izango da kopetan edota gorputzeko beste gune egoki batean igurtzi bakarra egitea, formula osoa esanez beti ere.

Bide-janaria ematea Oliadurarekin batera

26. Bizitza honetatik alde egitean, fededuna, Kristoren Gorputz-Odolak bide-janaritzat (viático) harturik, piztueraren bermeaz babestua gertatzen da, Jaunak esanaren arabera: *Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak badu betiko bizia eta Nik piztuko dut azken egunean* (Jn 6, 54). Inola ahal bada, eukaristia barruan hartu behar da bide-janaria, gaixoak Kristoren Gorputza eta Odola hartuko dituelarik, ahal badu.

27. Jaunartu dezaketen bataiatu guztiek behar dute bide-janaria hartu, heriotza-arriskuan daudelarik.

28. Bide-janaria hartzean, gaixoak bere Bataioko fede-aitorpena berritzea komeni da.

NOLA OSPATU GAIXOEN OLIADURA

VI. Pazko-igandea, gaixoaren eguna

VI. Pazko-igandean era berezian oroitzen da eliz elkarte gaixorik dauden senideez. Izan ere, Jesusen piztueraren salbamen-indarra denengana zabaldu eta iritsi beharrekoa da. Igande horretan, bereziki, Gaixoen Oliadurako Sakramentua hartu ahal izatea eskaintzen die eliz elkarteak gaixotasun berezia dutenei, ebakuntza larriren bat egin beharra dutenei, adinean aurreratuak daudenei, sakramentua hartzean Kristo piztuaren argia eta Espiritu Santuaren dohaina har dezaten, Jainkoaren adiskidetasuna, hau da, salbamina gozatzeko.

El VI Domingo de Pascua la comunidad eclesial ora de manera particular por los enfermos y ofrece la posibilidad de que celebren y reciban el sacramento de la Unción de los Enfermos aquellos que sufran una situación de gravedad significativa.

Gaixoen Oliadura Eukaristia barruan

Igande horretako eukaristia barruan ospatu ohi da Gaixoen Oliadura. Honela:

- Hitza entzun eta hausnartu ondoren, eskariak egiten ditu elkarteak
- Eskuak ezartzea: apaizak gaixo bakoitzari eskuak ezartzen dizkio, sakramentua Jainkoaren ekintza dela, Espiritua ari dela adierazteko
- Esker onezko otoitza olio santuagatik
- Gaixoa kopetan eta eskuetan olio santuaz igurztea
- Bukaerako otoitza

Cuando se celebra dentro de la eucaristía, tras la escucha de la Palabra de Dios, se hacen las peticiones litánicas, los presbíteros imponen las manos a los enfermos y los ungen con el óleo en la frente y las manos.

Gaixoen Oliadura etxean nahiz ospitalean

Gaixoen Oliadura etxean ere har dezake gaixoak, baita ospitalean ere. Arreta handia izan behar dute gaixoaren laguntzaileek gaixoarentzat sakramentua eskatzeko.

El sacramento de la Unción de los Enfermos puede celebrarse también en el domicilio del enfermo o en el hospital.

Jesus M^a Arrieta Sagasti
2026-05-08